



Martxoak 8- Emakumeen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorrarekin dugun konpromisoa irmoki berresten dugu. Printzipio demokratiko hori ukaezina da, eta gizarte justu, aske eta kohesionatu baten funtsezko zutabea.

Gaur, ahotsa irmo altxatzen dugu berdintasuna defendatzeko eta aldarrikatzeko, bere diskurtsoa zokoratzen eta zalantzan jartzen ari baita komunikabideetan, sare sozialetan eta, modu kezagarrian, giza harremanetarako eguneroko espazioetan.

Historian zehar berdintasunaren aurrerapenen aurrean gertatu den bezala, mugimendu antifeminista baten goraldian gaude gaur egun, diskurtso erreakzionario eta misoginoetan adierazten dena. Narratiba horiek oinarritzko konkistak zalantzan jartzea, nahasmendua sortzea eta indarkeria matxistaren existentzia deslegitimatzea bilatzen dute. **Diskurtso antifeministak** erasoaldi politiko eta kolektiboki antolatua osatzen dute, eta eztabaida publikoan ezin dira beste iritzi bat bezala onartu.

Berdintasunaren defentsa ez da aukera bat, ezta ideologia bat ere: **giza eskubide unibertsala da, aitortua eta babestua**. Hamarkadetan kolektiboki borrokatuz eta lan eginez lortu duten eskubidea da emakumeek, mugimendu feministak, erakundeek eta pertsona aliatuek, batez ere, diskriminazioa desagerrarazteko, askatasunak zabaltzeko eta guztientzako aukerak bermatzeko.

Berdintasunean hezten duen, estereotipoak baztertzen dituen eta errespetuan, askatasunean eta duintasunean oinarritutako harremanak sustatzen dituen gizarte aldarrikatzen dugu; baita indarkeria matxistaren biktimak eta bizirik atera direnak aintzat hartzen, laguntzen eta entzuten dituen ere. Izan ere, ozen eta garbi esaten dugu **berdintasunik gabe ez dagoela erabateko demokraziarik, eta indarkeria matxista desagerrarazi gabe, ez dagoela guztientzako askatasunik**.

Martxoaren 8an, euskal udalek dei egiten diegu herritar guztiei eta erakunde guztiei batuta eta elkartuta irmo egon gaitezen lortutako eskubideak defendatzeko eta, atzera pausurik gabe, berdintasun erreal eta eraginkorrerantz aurrera egiten jarraitzeko.

Horregatik, Ermuko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Diskurtso misogino, antifeminista eta faltsuei aurre egiten dieten Ermuko mugimendu feministaren eta gainerako taldeen ekintzak babestea; horretarako, Berdintasun arloko dirulaguntzak, materialen lagapena, espazioen kudeaketa eta beharrezkoak diren gainerako baliabideak eskainiz.
- Ikastetxeekin lanean jarraitzea, prestakuntzen, proposamen parte-hartzaileen eta jarduera ludikoen bidez, espazio horietan ager daitezkeen jarrera antifeministak eta maskulinitate toxikoak deseraikitzeke.



- Udal jarduera osoan zeharkako berdintasun-politikak bermatzen dituzten baliabideak eta egiturak zaintzea eta babestea, haien jarraitutasun normatiboa, teknikoa eta aurrekontukoa ziurtatuz.
- Berdintasunaren aldeko jarrera instituzionala indartzea, diskurtso antifeministen aurrean, barneko prestakuntza eta berdintasunaren balio demokratikoekin koherentea den komunikazio publikoa bermatuz.

Dei egiten diegu herritarrei bat egin dezaten Martxoak 8-Emakumeen Nazioarteko Egunean tokian-tokian antolatzen diren deialdi eta aldarrikapenekin.